Azpeitiko Udala

**AZPEITIKO UDALA**

*Gizarte-bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko norbanakoei eta familiei emango zaizkien udal-laguntzetarako 2026ko deialdia*

2023-2027 legegintzaldian Azpeitiko Udalak izango duen lan-ildoetako bat ekonomia-krisiak norbanakoei eta familiei sortutako beharrei aurrea hartu eta erantzutea izango da.

Norbanakoen bazterkeria egoerak nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeria egoerak arintzeko, eta herritarren gizarte-eskubideak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea errazteko, Azpeitiko Udalak norbanakoentzako zein familientzako udal dirulaguntza sistema bat arautu eta zabaldu nahi du.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluan adierazten da herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea dela Gizarte Zerbitzuen Euskal sistemaren helburua, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, eta funtsezko helburuak hauek direla:

a) Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunak eragindako beharrizan pertsonalak eta familiakoak prebenitzea eta horiei erantzutea.

**AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA**

*Convocatoria 2026 para la concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad***.**

Uno de los ejes de trabajo del Ayuntamiento de Azpeitia en la legislatura 2023-2027, radica en prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por la situación de crisis económica.

Con el fin de paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral, y facilitar la inclusión de quienes carezcan de recursos personales, sociales o económicos suficientes para el ejercicio efectivo de los derechos sociales de los ciudadanos, el Ayuntamiento de Azpeitia pretende normativizar y ampliar un sistema de ayudas económicas individuales y familiares municipales.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, señala en el artículo 6 que la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales es promover, en cooperación y coordinación con otros sistemas y políticas públicas, el bienestar social del conjunto de la población, siendo los objetivos esenciales:

a) Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia.

b) Babesgabetasun-egoerek eragindako premiei aurrea hartzea eta erantzutea.

b) Prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección.

c) Bazterkeria-egoerei aurrea hartzea eta erantzutea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

c) Prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos.

d) larrialdi-egoerek eragindako beharrizan pertsonalei eta familiakoei aurrea hartzea eta erantzutea.

d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

Hori dela-eta, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 16. artikuluak esaten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio ekonomikotzat hartzen direla gizarte-larrialdiko, gizarte-premiazko edo babesgabetasunezko egoerek eragindako ondorio ekonomikoak estaltzera edo leuntzera zuzendutakoak.

Por ello, el artículo 16 de dicha Ley 12/2008, de 5 de diciembre, dice que se consideran prestaciones económicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales las dirigidas a cubrir o paliar las consecuencias económicas de las situaciones de emergencia o urgencia social y desprotección.

“Larrialdirako laguntza” kontzeptuaren funtsa, hain zuzen ere, une jakin batean (denbora-epea) eta norberaren borondateaz besteko edo aparteko arrazoiak eraginda sortutako baliabide ekonomikorik gabeko edo gutxiko egoera artatzeko premia larria da.

La clave del concepto de ayuda de emergencia es precisamente la necesidad perentoria y urgente de atender una situación de carencia o estrechez de recursos económicos que se produce en un momento dado (plazo temporal), motivada por causas ajenas o sobrevenidas.

Beraz, ezusteko gertaera batek edo aldizkako prestazio ekonomikoen ondoriozko baliabide ekonomiko urriek sortutako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzean datza. Udalak norbanakoei eta familiei emango dizkien dirulaguntzak premiazko gabezia eta gabetasunak biltzen dituzten egoerak saihesteko baliabide aringarri modura erabiliko dira.

Se trata pues de cubrir situaciones económicas de emergencia provocadas por un acontecimiento inesperado y por la escasez de recursos económicos provenientes de prestaciones económicas de carácter periódico. Las ayudas económicas individuales y familiares municipales se utilizarán como un recurso paliativo que evita situaciones que pueden conllevar a privaciones y carencias de primera necesidad.

Udalaren dirulaguntza bat emateak gizarte-diagnostiko batean oinarritua egon behar du, hau da, larrialdi izaera duen premia-egoera ziurtatzen duen preskripzio tekniko batean, eta betiere baliabide ekonomikoen gabeziak eragindako gizarte bazterketako egoeren prebentzio gisa hartuko da.

La concesión de una ayuda económica municipal debe de estar basada en un diagnóstico social, en una prescripción técnica que avala la situación de necesidad con carácter de emergencia y considerada como preventiva de situaciones de exclusión social sobrevenidas por la escasez de recursos económicos.

Horregatik guztiagatik, beraz, honako erabaki honen bidez gizarte-baztertze eta/edo behar egoera larrian dauden egoerak leuntzeko norbanakoentzako eta familientzako laguntzak emateko dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak onartzen dira.

Por ello, mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria de subvenciones para la concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad.

Deialdi honetan arautzen ez diren baldintza eta gai guztietarako, 2022ko martxoaren 30eko GAOn argitaratutako oinarri arautzaileak aplikatuko dira, baita dirulaguntzen udal ordenantzan xedatutakoa ere.

Para todas las condiciones y cuestiones no reguladas en esta convocatoria, serán de aplicación las bases reguladoras publicadas en el BOG el 30 de marzo de 2022, así como lo dispuesto en la ordenanza municipal de subvenciones.

Laguntza hau Udalaren 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzen da. Plan hori 2026ko otsailaren 25eko GAOn argitaratu zen. Deialdi honek ondorengo legediari erantzuten dio:

La presente ayuda se integra en el Plan Estratégico de Subvenciones 2026-2028 del Ayuntamiento publicada en el BOG 25 de febrero de 2026. Esta convocatoria responde al siguiente marco normativo:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, udal-eskumenari buruzkoa, 17. artikuluko 13. puntua, gizarte-zerbitzuak antolatzeari, planifikatzeari eta kudeatzeari buruzkoa; 14. puntua, diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko antolamendua, programazioa eta kudeaketa.

- 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzkoa.

- Ley 2/2016, de 7 de abril de competencia municipal del artículo 17 punto 13) de ordenación, planificación y gestión de los servicios sociales, y al punto 14) Ordenación, programación y gestión en materia de garantía de ingresos e inclusión social.

- Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

- 21/2026 Dekretua, otsailaren 24koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Erregelamendua onartzen duena.

- 2026ko martxoaren 31ko Agindua, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzkoa.

Horiek horrela, legeak aitortzen dizkion eskumenen baitan, Alkatetzak sinadura elektronikoko datan emandako ebazpenaren bidez,

**ERABAKI DU**

*Aurrena*.- Gizarte mailako baztertze eta/edo behar-egoera larriko egoerak leuntzeko norbanakoei eta familiei dirulaguntzak emateko 2026 urteko deialdia onartzea. Erabaki honen **I eranskin** modura doa.

*Bigarrena*.- 2026ko deialdiari aurre egiteko, ehun eta hirurogeitazortzi mila euro (168.000 €) baimentzea, Azpeitiko Udalaren, aurrekontuko kontu sail hauen kontura:

1.0600.480.231.00.03 2026 – 168.000 €

Aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

- Decreto 21/2026. de 24 de febrero por el que se aprueba el reglamento de las Ayudas de Emergencia Social.

- Orden de 31 de marzo de 2026 de Ayudas de Emergencia Social.

En consecuencia, de conformidad con las competencias que la ley le otorga, por Resolución de Alcaldía con fecha de firma electrónica,

**RESUELVE**

*Primero.* - Aprobar la convocatoria 2026 para la concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad que se acompaña al presente acuerdo como **anexo I.**

*Segundo.* - Para hacer frente a la convocatoria del año 2026, autorizar un gasto por importe de ciento sesenta y ocho mil euros (168.000 €), con cargo a la siguiente partida presupuestaria del Ayuntamiento de Azpeitia:

1.0600.480.231.00.03 2026 – 168.000 €

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Hirugarrena.*- Deialdia argitaratzeko beharrezko dokumentazioa emango zaio BDNSari. Hitzarmen honen bidez onartutako oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek Donostian dauden Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Alkatetzaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteari utzi gabe.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Azpeitian, sinadura elektronikoaren datan .- Nagore Alkorta Elorza

**I ERANSKINA**

*Gizarte bazterkeriazko eta/edo behar oso larriko egoerak arintzeko norbanakoentzako eta familientzako udal dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia.*

*Tercero. S*e facilitará a la BDNS la documentación necesaria para la publicación de la convocatoria. Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el siguiente día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

Azpeitia, en fecha de firma electrónica-Nagore Alkorta Elorza.

**ANEXO I**

*Convocatoria 2026 para la concesión de ayudas económicas individuales y fami-*

*liares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad.*

**1.Oinarri arautzaileak**

Alkatetzak 2022ko martxoaren 17ko emandako ebazpenaren bidez onartutako oinarri arautzaile espezifikoak (GAO 2022ko martxoaren 30, zk.61).

**1.Bases reguladoras**

Mediante la Resolución de Alcaldía de 17 de marzo de 2022 se aprobaron las bases reguladoras especificas (BOG nº 30, 61 de marzo de 2022).

**2. Finantzaketa.**

2.1.Deialdi ireki honetan emango diren laguntzen diru kopurua ehun eta hirurogeita zortzi mila euro (168.000 €) 1.0600.480.313.00.03 2026 kontu-sailetik ordainduko da.

Aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

**2. Financiación.**

2.1. La cuantía total de las Ayudas a conceder en la modalidad de convocatoria abierta será de autorizar un gasto de ciento sesenta y ocho mil euros (168.000 €), con cargo a la partida presupuestaria 1.0600.480.231.00.03 2026.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

**3.- Deialdian eskaerak aurkeztea eta prozedura ebaztea.**

3.1. Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskaerak; eta horiek aurkezteko epea 2026ko abenduaren 1ean amaituko da, edo

**3.- Presentación de solicitudes a la convocatoria y resolución del procedimiento.**

3.1. Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y el plazo de presentación finalizará el día 1 de diciembre de 2026 o en su caso, una

deialdi honetarako jarria dagoen aurrekontua amaitzen denean.

vez se agote el presupuesto destinado para esta convocatoria.

3.2. Dagokion ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik hasita.

3.2. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de tres meses, a contar desde la presentación de la solicitud.

**4.- Udal-laguntzak emateko epearen hasiera.**

**4.- Plazo de inicio de las ayudas**

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2025eko abenduaren 1etik aurrera sortutako premiei lotuta egon behar dute.

Los gastos que puedan ser cubiertos a través de la siguiente convocatoria, deben estar asociados a necesidades surgidas a partir del 1 de diciembre de 2025.

**5.- Zuritzeko epea.**

**5.- Plazo de justificación.**

Laguntzak zuritzeko gehieneko epea hilabetekoa izango da, dirulaguntza hori jasotzen denetik hasita.

Los plazos máximos de justificación de las ayudas serán de un mes a partir de la percepción de las mismas.

**6.- Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.**

**6.- Documentación a presentar con la solicitud.**

Eskaerak egiteko, Azpeitiko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan (Matxinada Kalea 1766, Número 2,3 bajo 20.730 Azpeitia) eta Udalaren egoitza elektronikoan dagoen eredu ofiziala erabili beharko da.

Para formalizar la solicitud, deberá cumplimentarse el modelo oficial existente en las oficinas de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Azpeitia (Matxinada Kalea 1766, 2,3 zenbakia behea 20.730 Azpeitia) y en la sede electrónica del Ayuntamiento de Azpeitia.

**II Eranskinean** aurkeztu beharreko agiriak jaso dira.

La documentación a presentar se recoge en el **Anexo II.**

Aurkeztutako prozesuak behar bezala ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat

El departamento de Servicios Sociales podrá solicitar cuanta información adicional entienda necesaria para la correcta

jotzen duen informazio gehigarri oro eskatu ahal izango du Gizarte Zerbitzuen sailak.

evaluación y resolución de los procesos que se presenten.

**7.- Jakinarazpenak.**

Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Organo emaileak Udalaren web orrian emandako laguntzen estraktu argitaratuko du, kasu bakoitzean.

**7.- Notificaciones.**

La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada solicitante. Además, el órgano concedente publicará en la página web un extracto de las subvenciones concedidas.

**I ERANSKINA**

*Laguntzak zehaztea. Helburuak.*

1. **Etxebizitzarako udal-prestazioak**

Etxebizitzarako udal-prestazioek Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Araudian jasotzen ez diren egoerak arinduko edo osatuko dituzte, bai eta laguntza horien aurrekontu-mugak direla-eta landu ezin direnak ere.

Laguntza mota hori jaso dezaketen bizikidetza-unitateen gehieneko kopurua 2 izango da. Alokairu-gastuei edo kreditua amortizatzeari lotutako eskabideen kasuan, bizikidetza-unitateko kideen artean 2. mailara arteko ahaidetasun-harremana badago, prestazio bakarra emango da.

Etxebizitza-prestazioak honela sailkatzen dira

**ANEXO I**

*Determinación de las ayudas. Finalidades.*

1. **Prestaciones municipales de vivienda**

Las prestaciones municipales de vivienda vendrán a paliar o complementar situaciones que no se contemplen en el Reglamento de las Ayudas de Emergencia Social, así como aquellas que no puedan ser abordadas dados los límites presupuestos de éstas.

El número máximo de unidades de convivencia que pueden acceder a este tipo de ayuda será de 2. En el caso de solicitudes asociadas a gastos de alquiler o de amortización de crédito, si existiese relación de parentesco hasta el 2º grado entre los miembros de la unidad de convivencia, solo se concederá una prestación.

Las prestaciones de vivienda se clasifican en:

***1.a. Etxebizitza oinarrizko gastuak.***

Alokairua

Gehienez eman daitezkeen zenbatekoak alokairu-kontratu motaren araberakoak izango dira.

- Etxebizitza osoa alokatzeko hileko gehieneko zenbatekoa 300 €-koa izango da, eta ezingo da izan kostu errealaren % 70 baino handiagoa.

- Errentamendu partekatua, azpierrentamendua, ostatua, apopilotza edo gelaren alokairuaren kasuan, hileko gehieneko zenbatekoa 150 €-koa izango da, eta ezingo da inoiz ere kostu errealaren % 80a baino handiagoa izan.

- Hoteleko/pentsioko egonaldiaren hileko zenbatekoa 300 €-koa izango da, eta ezingo da izan benetako kostuaren % 80a baino handiagoa.

Amortizazioa

- Etxebizitza-kreditурако hileko gehieneko zenbatekoa 300 € izango da. Ezin izango da kostu errealaren % 70 baino handiagoa izan.

Ohiko etxebizitza erosteko helburua duten hipoteka-kredituak bakarrik hartuko dira kontuan, baldin eta DSBE eta/edo GLL eskatu aurretik formalizatu badira, gizarte-langileak hala onartutako salbuespenezko inguruabarrak izan ezik.

***1.a. Gastos básicos de vivienda.***

Alquiler

Las cuantías máximas a conceder dependerán del tipo de contrato de alquiler.

- La cuantía máxima mensual para el alquiler de vivienda entera será de 300€, no pudiendo superar el 70 % del coste real.

- La cuantía máxima mensual para el coarrendamiento, subarriendo, hospedaje, pupilaje o alquiler de habitación será de 150 €, no pudiendo superar en ningún caso el 80 % del coste real.

- La cuantía mensual de estancia hotel/pensión será de 300 €, no pudiendo superar el 80% del coste real.

Amortización

- La cuantía máxima mensual para el crédito de vivienda será de 300€, no pudiendo superar el 70 % del coste real.

Sólo se tendrán en cuenta los créditos hipotecarios que tuvieran como finalidad la adquisición de la vivienda habitual y que además se hayan formalizado con anterioridad a la fecha de solicitud de RGI y/o AES, salvo circunstancias excepcionales así reconocidas por el/la trabajador/a social.

Etxebizitza bat birhipotekatu bada, hasierako hipoteka ordaintzeko dagoen zenbatekorako bakarrik eskatu ahal izango da laguntza.

En los casos en los que se haya rehipotecado una vivienda, no podrán solicitarse la ayuda más que para la cuantía pendiente de pago de la hipoteca inicial.

Mantentze-gastuak.

Gastos de mantenimiento

Oro har, mantentze-gastuetarako (ura, OHZ, zaborrak, komunitatea, etab.) gehieneko zenbatekoa 900 €-koa izango da.

Con carácter general la cuantía máxima para los gastos de mantenimiento (agua, IBI, basuras, comunidad etc.) será de 900€.

Salbuespen gisa, eta lan-jarduera ekonomikorik egiten ez badute, zenbateko horri 900€ gehiago gehituko zaizkie ondorengo eskatzaileei:

- 65 urtetik gorakoak
- Pentsiodun izaera aitortua izatea
- % 65eko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta izatea.
- Bizikidetza-unitateko bi kidek baino gehiagok % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta badute.

Era berean, salbuespen gisa, zenbatekoa 900€ gehiago handituko da gizarteratze- eta laneratze-zentro batera doazen pertsonentzat.

De manera excepcional, y siempre y cuando no realice una actividad económica laboral, está cuantía se verá incrementada en 900€ más para la persona solicitante de la ayuda que:

- Sea mayor de 65 años
- Tenga reconocida una discapacidad igual o superior al 65%.
- Tenga reconocida una discapacidad igual o superior al 65%.
- En su unidad de convivencia más de dos de sus miembros tengan reconocida una discapacidad igual o superior al 33%.

Igualmente, y de manera excepcional, la cuantía se verá incrementada en 900€ más para aquellas personas que acudan a un centro de inserción socio-laboral.

***1.b. Etxebizitzaren ez ohiko gastuak***

***1.b. Gastos extraordinarios de vivienda.***

Etxebizitzan edo logelan sartzearekin lotutako gastuak.

Gastos asociados a entrada en vivienda o habitación

Alokairurako fidantza ordaintzeko gastuei aurre egiteko eman beharreko gehieneko zenbatekoa, edozein modalitatetan, 1850 €

La cuantía máxima a conceder para afrontar los gastos relativos al pago de la fianza para alquiler en cualquiera de sus modalidades será de 1850 € en el caso de

izango da etxebizitza osorako sarreren kasuan, eta 900€-koa errentamentu-partekatua, azpierrentamenduen edo gelen kasuan.

las entradas de vivienda completa, y 900 € en el caso de coarriendos, subarriendos o habitación.

Inola ere ez da ordainduko gastuaren % 70 baino gehiago

En ningún caso se abonará más del 70% del gasto.

Prestazio hori ezin izango da kontzeptu beragatik izapidetu 5 urteko epean, salbu eta gizarte- langileak behar bezala justifikatutako salbuespenezko proposamena egiten badu txosten sozialean.

Esta prestación no podrá ser tramitada por idéntico concepto en el periodo de 5 años, salvo que la trabajadora social realice propuesta excepcional debidamente justificada en informe social.

Prestazio hori finalista denez, hartzaileak fakturak edo egindako gastuen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, edo, bestela, prestazioak itzuli beharko ditu.

El carácter finalista de la prestación obliga a la persona destinataria a la presentación de las facturas o justificantes de los gastos realizados, o en su defecto, al reintegro de las prestaciones.

Laguntza hori justifikatzeko, agentziaren gastuak, fidantza-gastuak eta, salbuespen gisa, lehenengo hilabetea hartuko dira kontuan.

Para justificar dicha ayuda, se tendrán en cuenta los gastos de agencia, los gastos de fianza, así como de manera excepcional, el primer mes.

Hartzaileak, ondoren, alokairua diru-sarrera propioekin eta/edo prestazioekin ordaintzea bideragarria dela bermatu beharko du.

La persona destinataria deberá garantizar la viabilidad del pago del alquiler posterior con ingresos propios y/o prestaciones.

Etxegabetzeak saihestea

Evitación de desahucios

Bizitegi-bazterketako egoerak saihesteko helburuarekin, salbuespenez, aparteko laguntza ekonomikoa eman ahal izango da familiak beren etxebizitzan manten daitezen, etxegabetzea saihestuz.

Con el objetivo de evitar situaciones de exclusión residencial, de manera excepcional se podrá conceder una ayuda económica extraordinaria para que las familias se mantengan en su vivienda, evitando el desahucio.

Gehienez ere, 1.200 €emango dira.

La cuantía máxima a conceder será de un máximo de 1200€.

Hala ere, eta betiere gizarte-langilearen txosten arrazoituarekin, salbuespenez laguntza handiagoa ematea baloratu ahal izango da, baldin eta modu frogagarrian egiaztatzen bada etxegabetzea geldirik geratzen dela, eta bizikidetza-unitatean pertsona zaurgarriak daudela (adingabeak, genero-indarkeriaren biktimak, adinekoak).

No obstante, y siempre con informe social motivado de su trabajadora social, se podrá valorar de manera excepcional, si se acreditara fehacientemente que el desahucio quedara paralizado, y si existiesen en la unidad de convivencia personas vulnerables (menores, víctimas de violencia de género, personas mayores) se podrá conceder una ayuda superior.

Ezinbesteko baldintza izango da GLLen edo udal-laguntzen emakidarik ez egotea helburu bererako epe berean.

Será requisito indispensable la inexistencia de concesiones de AES y o ayudas municipales previas para esta misma finalidad en el mismo periodo.

Era berean, ezin izango zaizkio laguntza berberak izapidetu eskatzaile berari, gutxienez 5 urteko epean, salbu eta gizarte-langileak behar bezala justifikatutako salbuespenezko proposamena egiten badu txosten sozialean.

Esta prestación no podrá ser tramitada por idéntico concepto en el periodo de 5 años, salvo que la trabajadora social realice propuesta excepcional debidamente justificada en informe social.

Hartzaileak, ondoren, alokairua edo hipoteka diru-sarrera propioekin eta/edo prestazioekin ordaintzea bideragarria dela bermatu beharko du.

La persona destinataria deberá garantizar la viabilidad del pago del alquiler o hipoteca posterior con ingresos propios y/o prestaciones.

<u>Oinarrizko etxebizitza-premiak egokitzea eta/edo konpontzea.</u>

<u>Adaptación y/o reparación de necesidades básicas de vivienda</u>

Kontzeptu horrengatik eman beharreko gehieneko zenbatekoa 1850 €-koa izango da.

La cuantía máxima a conceder por este concepto será de 1850 €.

Laguntza honen helburua honako hauek estaltzea da
:

Esta ayuda se dirigirá a cubrir:

*"Eskatzailearen etxebizitza partikularrean sortutako gastuak, premia berezi-*

"*Gastos originados en la vivienda particular de la persona solicitante, de primerísima necesidad, no repetitivas y que*

*koak, errepikakorrak ez direnak eta funtzionamendu normaleko etxebizitzaren elementu bat ordeztea ez dakartenak".*

Oinarrizko obratzat hartuko dira: energia elektrikoaren tentsioa aldatzea, gasa instalatzea, bainugela egokitzea eta konpontzea, eta batzorde teknikoak premiazkotzat jotzen dituenak.

Lehentasuna izango dute adingabeak, adinekoak eta/edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak bizi diren bizikidetza-unitateek.

Aurrekontu bat aurkeztu beharko da, eta gizarte-langileak etxebizitzaren egoera baloratu ahal izango du etxeko bisitan.

*Jabeen erkidegoko hobekuntza-obrekin lotutako aparteko gastuak, betiere beste erakunde batek diruz lagundu ez baditu edo diruz lagundu ezin badira.*

Eskabidea aurkeztu aurretik, eskatzaileak dirulaguntza jasotzeko eskabidea egin beharko du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailean, eta horren ebazpena espedienteari erantsiko zaio.

Era berean, jabekideek obrak onartzen dituzten bileraren akta aurkeztuko da, eta/edo administratzaileak sinatutako dokumentua, eskatzaileak ordaindu beharreko gastuaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua jasotzen dituena.

*no supongan la sustitucion de un elemento de la vivienda en normal funcionamiento".*

Se considerarán obras básicas: cambio de voltaje de energía eléctrica, instalación de gas, adaptaciones y arreglos de cuarto de baño y aquellas que sean valoradas como urgentes por parte de la comisión técnica.

Tendrán prioridad las unidades de convivencia en las que residan las personas menores de edad o peronas mayores y/o personas con diversidad funcional.

Se requerirá la presentación de un presupuesto y la situación de la vivienda podrá ser valorada por la trabajadora social en visita domiciliaria.

*Gastos extraordinarios asociados a obra de mejora en comunidad de propietarios siempre que no hayan sido o puedan ser subvencionados por otra institución.*

Será necesario que antes de presentar la solicitud, la persona solicitante realice la solicitud de subvenciín de ayuda económica en el departamento de vivienda de Gobierno Vasco, cuya resolución se acompañará al expediente.

Asimismo, se presentará acta de la reunión de personas copropietarias donde se aprueben las obras y/o documento firmado por la persona administradora donde aparezca recogida la cuantía del gasto a abonar por la persona solicitante y la forma de pago.

Gehieneko ordainketa-zenbatekoa gastuaren % 75 izango da, eta ezin izango da 1850 eurotik gorakoa izan, gizarte-langileak behar bezala justifikatutako txosten sozialaren bidez proposamen arrazoitua egin ezean.

<u>Instalazioak, premia biziko altzariak eta linea zuriko etxetresna elektrikoak</u>

Bizikidetza-unitate bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa 1850 €-koa izango da.

Beti emango dira, baldin eta egiaztatzen bada behar-beharrezkoak direla, ez direla errepikakorrak eta ez dutela funtzionamendu normaleko elementu bat ordezten. Merkatuko prezioetara egokitutako aurrekontua aurkeztu beharko da.

Ezin izango zaizkio laguntza berberak izapidetu eskatzaile berari gutxienez 5 urteko epean, salbu eta gizarte-langileak behar bezala justifikatutako salbuespenezko proposamena egiten badu txosten sozialean.

Lehentasuna izango dute adingabeak edo dibertsitate funtzionala duten adinekoak bizi diren bizikidetza-unitateek.

Gastu zehatz bakoitzeko gehieneko zenbatekoa honako hau izango da:

La cuantía máxima de abono corresponderá al 75% del gasto, no pudiendo superar los 1850€, salvo propuesta motivada de la trabajadora social mediante informe social debidamente justificado.

<u>Instalaciones, mobiliario de primera necesidad y electrodomésticos de línea blanca</u>

La cuantía máxima anual a conceder por unidad de convivencia será de 1850 €.

Se concederán siempre y que se acredite que son gastos de primerísima necesidad, no repetitivos y que no suponen la sustitución de un elemento en normal funcionamiento. Se exigirá la presentación de un presupuesto ajustado a los precios del mercado.

No podrán ser tramitadas ayudas por idéntico concepto, al mismo solicitante, en un período mínimo de 5 años, salvo que la trabajadora social realice propuesta excepcional debidamente justificada en informe social.

Tendrán prioridad las unidades de convivencia en las que residan personas menores de edad, personas mayores/o con diversidad funcional.

La cuantía máxima por cada gasto concreto será de:

| Linea zuriko etxetresna elektrikoak | Premia biziko altzariak |
|---|---|
| Suak/ bitro 275€<br>Galdara mistoa 725€<br>Ur-berogailua 325€<br>Hozkailua 375€<br>Mikrouhinak 100€<br>Garbigailua 400€<br>Berogailua 225€ | Ohe bikoitza 225€<br>Koltxoi bikoitza 450€<br>Banakako ohea 125€<br>Koltxoi ind. 325€<br>Armairua 125€<br>Sukalde mahaia 125€<br>Sukalde aulkia 75 €/ aulkia |

| Electrodomésticos de línea blanca | Mobiliario de primera necesidad |
|---|---|
| Fuegos/ vitro-275€<br>Caldera mixta –725€<br>Calentador agua 325€<br>Frigorífico 400€<br>Microondas 100€<br>Lavadora 375€<br>Calefacción 225€ | Cama doble 225€<br>Colchón doble 450€<br>Cama individual 125€<br>Colchón ind. 325€<br>Armario 125€<br>Mesa de cocina 125€<br>Silla cocina 75€/silla |

***1.c. Etxebizitzaren oinarrizko eta ezohiko kontzeptuei lotutako zorpetze-gastuak***

Salbuespen gisa, eta pertsona zaurgarriek beren baliabideekin eta/edo dagozkien prestazioekin alokairu-, hipoteka-, argi- eta/edo gas-ordainagirien ordainketari lotutako gastuak estaltzeko zailtasun ekonomikoak izan ditzaketen egoerak saihesteko, laguntza puntuala eman ahal izango da gastu horiei salbuespenez aurre egiteko, betiere honako kasu hauetan:

- Bizikidetza-unitatean adingabeak, adinekoak eta/edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak egotea.
- Egiaztatzea gastuak ezin izan direla ordaindu bizikidetza unitateak dituen baliabide ekonomikoekin.

Proposamen ekonomikoa gizarte-langileak egingo du, eta proposamen ekonomikoak ezin izango ditu, inola ere, 1.a eta 1.b

***1.c. Gastos de endeudamiento asociados a los conceptos básicos y extraordinarios de vivienda***

De manera excepcional y al objeto de evitar situaciones en las que personas vulnerables puedan tener dificultades económicas para cubrir con sus propios recursos y/o con las prestaciones correspondientes los gastos asociados al pago de los recibos de alquiler, hipoteca, luz y/o gas, así como otros gastos extraordinarios de vivienda, podrá concederse apoyo puntual para afrontar dichos gastos de manera excepcional, siempre y cuando:

- En la unidad de convivencia existan personas menores de edad, personas mayores y/o personas con diversidad funcional.
- Quede acreditado que el gasto no ha podido ser enfrentado con los recursos económicos de la unidad convivencial.

La propuesta económica será realizada por la trabajadora social, no pudiendo su-

idatz-zatietan gastu zehatzari lotutako zenbatekoak gainditu.

perar en ningún caso las cuantías asociadas al gasto concreto recogidas en los apartados 1.a y 1.b.

**2. Oinarrizko premiak estaltzeko gastuak.**

***2. Gastos para la cobertura de necesidades básicas.***

Atal honetan, bizikidetza-unitateko kide baten edo gehiagoren lehen mailako premiei dagozkien gastuak jasotzen dira, hala nola elikadura, jantziak, hezkuntza, prestakuntza, arreta soziosanitarioa, garraioa, mendeko pertsonentzako arreta eta/edo laguntza, laguntza juridikoa sistema publikoek estaltzen ez dituztenak.

En este apartado se contemplan gastos relativos a las necesidades primarias de una o más personas miembros de la unidad de convivencia tales como alimentación, vestido, educación, formación, atención socio-sanitaria transporte, atención y/o apoyo a personas dependientes, asistencia jurídica… no cubiertas por los diferentes sistemas públicos.

Atal honetan bizikidetza-unitateari eman beharreko urteko gehieneko zenbatekoa 2500 €izango da.

La cuantía máxima anual para conceder en este apartado para la unidad de convivencia será de 2500€.

***2.a. Premia larrian dauden bizikidetza-unitateentzako elikadura-gastuak.***

***2.a. Gastos de alimentación para unidades convivenciales en situación de extrema necesidad.***

Beste prestazio ekonomikorik jaso ezin duten bizikidetza-unitateei zuzendua, baldin eta premia hori puntuala bada, denboran mugatua eta bestelako laguntzak formalizatu ahal izan arte.

Dirigida a unidades convencionales que no pueden acceder a otras prestaciones económicas, siempre que esta necesidad sea de carácter puntual, limitada en el tiempo y hasta que se pudieran formalizar otro tipo de ayudas.

Bizikidetza-unitateak, aldez aurretik, bere eskubideak baliatu beharko ditu, baldin eta kontzeptu bererako beste prestazio mota bat egokitu ahal bazaio (DSBE, IMV, GLL).

La unidad convencional deberá previamente hacer valer sus derechos en caso de que pudiera corresponderle otro tipo de prestación para este mismo concepto (RGI, IMV, AES).

Prestazio hori jaso aurretik DSBE edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatu duten pertsonek laguntza berezia jaso ahal

En caso de personas que hayan cursado solicitud de RGI o ingreso mínimo vital, con carácter previo a la percepción de

izango dute kontzeptu honengatik, salbuespenezko egoeretan eta aldez aurretik balorazio teknikoa eginda.

Jasotako zenbatekoak udalari itzuli behar zaizkiola deklaratzeko aukera dago, aldez aurretik eskatutako prestazioak ebatzi eta jasotzen diren unean.

esta prestación, podrán percibir ayuda especial por este concepto, en situaciones excepcionales y previa valoración técnica.
Existe la posibilidad de declarar la obligación de devolución al ayuntamiento de las cantidades percibidas, en el momento en que resuelvan y se perciban las prestaciones solicitadas previamente.

| Pertsona kopurua | BU zenbatekoa adingaberik gabe €/ hilean |
|---|---|
| 1 | 300 |
| 2 | 400 |
| 3 o más | 500 |

| N.º miembros de la unidad convivencial | Cuantía mensual UC sin menores a cargo |
|---|---|
| 1 | 300€ |
| 2 | 400€ |
| 3 o más | 500€ |

Bizikidetza-unitatean adingabekoak dauden kasuetan, adingabe bakoitzeko, zenbatekoa 100€ igoko da.

En el caso de menores en la unidad convivencial, la cuantía asignada por cada menor de edad será aumentada en 100€.

***2.b. Unean uneko beharrak estaltzeko gastuak:***

***2.b. Gastos para la cobertura de necesidades puntuales relacionadas con:***

<u>Prestazio soziosanitarioak</u>

<u>Prestaciones socio-sanitarias</u>

Modalitate desberdinetako prestazio soziosanitarioetarako urteko gehieneko zenbatekoa 1400€ izango da 2 pertsonaz edo gehiagoz osatutako familia-unitateentzat.

Pertsona bakarreko unitateen kasuan, urteko gehieneko zenbatekoa 700 € izango da.

La cuantía máxima anual a conceder para las prestaciones socio-sanitarias en sus diferentes modalidaes será de 1400 € para aquellas unidades familiares compuestas por 2 o más personas.

En el caso de unidades unipersonales la cuantia máxima anual será de 700 €.

| Kontzeptua | Gehieneko zenbatekoa €/urtean |
| --- | --- |
| Begi-protesiak | 300 € |
| Hortzen konponketa-protesiak | 600 € |
| Farmaziako gastuak | 500 € |
| Audifonoak | 250€/audifonoko |
| Beste gastu sozio-sanitario batzuk | 1400€ |

| Concepto | Cuantía máxima € anual |
| --- | --- |
| Prótesis oculares | 300 € |
| Prótesis arreglos dentales | 600 € |
| Gastos de farmacia | 500 € |
| Audífonos | 250€ / audífono |
| Otros gastos socio-sanitarios específicos | 1400€ |

Begi-protesietarako laguntza eskatzeko, optikaren aurrekontua eta txostena aurkeztu beharko dira. Graduazio-aldaketa egiaztatzen ez bada, ez da eskabide berririk emango.

Previa solicitud de ayuda para prótesis oculares se requerirá la presentación de un presupuesto e informe de la óptica. No se concederán nuevas solicitudes si no se acredita cambio de graduación.

Hortz-konponketekin eta protesiekin lotutako gastuei dagokienez, pertsonaren osasuna zaintzeko beharrezkoak diren lehen mailako tratamenduak soilik hartuko dira kontuan, eta dagokion aurrekontua aurkezteko eskatuko da, tratamendu beragatik 5 urteko epean emateko aukerarik gabe, gizarte-zerbitzuen salbuespenezko proposamenik ezean.

Con respecto a los gastos relacionados con prótesis y arreglos dentales, se contemplarán exclusivamente los tratamientos primarios necesarios para preservar la salud de la persona, solicitándose la presentación del presupuesto correspondiente y sin posibilidad de concesión por el mismo tratamiento en el plazo de 5 años, salvo propuesta excepcional de los servicios sociales.

Osakidetzak bere gain hartzen ez dituen gastu hauek sartuko dira: garbiketa, buxadurak, zigilatzeak, enpasteak, berreraikuntzak, endodontziak, zubi finkoak, hortzordeak, zorroak eta koroak

Se incluirán los gastos no cubiertos por Osakidetza relacionados con: limpieza, obturaciones, sellados, empastes, reconstrucciones, endodoncias, puentes fijos, dentadura postiza, fundas y coronas.

Osasun-sistema publikoak estaltzen ez dituen farmazia-gastuak eskuratu ahal izateko, mediku-txostena eta errezeta inprimatua beharko dira. Bizikidetza-unitateak diru-sarrerarik ez duenean bakarrik izapidetuko dira kontzeptu horrengatiko laguntzak.

Para poder acceder a los gastos de farmacia no cubiertos por el sistema público de salud, se requerirán informe médico y receta impresa. Sólo se tramitarán ayudas por este concepto cuando la unidad convivencial carezca de ingresos económicos.

Audifonoak erosteko laguntzak eskuratu ahal izateko, aurrekontuaz gain, espezialistaren txostena ere beharko da.

Para poder acceder a ayudas para la compra de audífonos, se requerirá además del presupuesto, informe del especialista.

Era berean, atal honetan beste gastu soziosanitario batzuk ere jasotzen dira, eta horien eskaera salbuespenez baloratuko da.

Asimismo, se contemplan en este apartado otros gastos de carácter socio-sanitario, cuya solicitud será valorada con carácter excepcional.

Oinarrizko beharretarako gastuak

Gastos para necesidades básicas

Aurreko atalean jaso ez diren eta premiazkoak diren janzteko, laguntza juridikoko, mendeko pertsonen arretako eta abarretako premiek eragindako gastuak estaltzeko laguntzak. Gehieneko zenbatekoa 900 €-koa izango da 2 pertsona baino gehiagoko familia-unitate bakoitzeko.

Ayudas destinadas a cubrir los gastos derivados de necesidades de vestido, atención jurídica, atención a personas dependientes… no recogidas en el apartado anterior y de carácter urgente. La cuantía máxima será de 900 € por cada unidad familiar de más de 2 personas.

Pertsona bakarreko unitateen kasuan, 450 € izango da gehieneko zenbatekoa.

En el caso de unidades unipersonales la cuantía máxima será de 450 €.

Hileta-gastuen prestazioak

Prestaciones destinadas a gastos funerarios

Eskumen hori udalaren eskumenekoa da, 25 k letra, III. Kapitulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Esta competencia es de carácter municipal, tal y como queda regulado en el art. 25.k), capítulo III de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local.

Bizikidetza Unitateak ehorzketatik eratorritako gastuei aurre egiteko baliabide

Podrá ser tramitada cuando la unidad de convivencia carezca de recursos

ekonomikorik ez duenean izapidetzen da. Gehienezko laguntzak ez du 1.500 €ko zenbatekoa gaindituko.

**3. Gizarteratze-prozesuei lotutako gastuak.**

Laguntza horien helburua da pertsonak komunitatean integratzea. Mendekotasuna gainditzeko prozesuekin, prestakuntzarekin, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuekin eta komunitatean murgiltzeko prozesuekin lotutako gastuen estaldura barne hartzen du.

- *Adinez nagusiak*

Urteko gehieneko zenbatekoa 600 €-koa izango da. Honako kontzeptu hauekin lotutako laguntzak ordaindu ahal izango dira:

- Prestakuntza-gastuak.
- Joan-etorrien gastuak, aldez aurretik MUGIren eskaera beharrezkoa izanik.
- Materiala erosteko gastuak.
- Mendekotasuna gainditzeko prozesuan dauden pertsonentzako gastuak.

- *Adingabeentzako gastuak*

Adingabe bakoitzak 1.600€ jaso ahal izango ditu urtean gehienez, egiten dituen jardueren kopurua edozein dela ere.

económicos para hacer frente a los gastos derivados de enterramiento. La cuantía máxima a conceder no superará los 1500€.

**3. Gastos asociados a procesos de inserción.**

La concesión de estas ayudas persigue facilitar la integración de las personas en el ámbito comunitario. Incluye la cobertura de gastos asociados a procesos de deshabituación, formación, inserción sociolaboral e inmersión comunitaria.

- *Personas mayores de edad*

La cuantía máxima anual será de 600 €. Se podrán abonar ayudas relacionadas con los siguientes conceptos:

- Gastos de formación.
- Gastos de desplazamiento, requiriéndose la solicitud previa de MUGI.
- Gastos para la compra de material.
- Gastos para personas en proceso de deshabituación.

- - *Gastos para menores de edad*

La cuantía máxima anual que podrá percibir cada persona menor con independencia del número de actividades que realice, será de 1600 €.

Laguntza ekonomikoak honako hauei lotutako gastuetarako eskatu ahal izango dira:

- Prestakuntzarako gastuak, hilean gehienez 90 €-koak.
- Udal igerilekua ordaintzeko kuota: 100 €familia unitate bakoitzeko.
- Kirol- eta kultura-jarduerak, hilean gehienez 50 €.
- Aisialdiarekin eta denbora librearekin lotutako beste jarduera batzuk, gizarte-zerbitzuek balioesten dituztenak, udalekuak, esaterako.

Podrán solicitarse ayudas económicas para los gastos asociados a:

- Gastos para la formación, cuya cuantía máxima mensual no superará los 90€.
- Cuota para el abono de la piscina municipal, a razón de 100€ por unidad familiar.
- Actividades deportivas y culturales, con una cuantía máxima mensual de 50€/menor.
- Otras actividades ligadas al ocio y tiempo libre valoradas por los servicios sociales, como los udalekus.

**II ERANSKINA**

Eskaerarekin batera, interesatuak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, onuradun izateko eskubidea duela frogatzeko:

1. Eskatzailearen eta bizikidetza-unitateko gainerako kideen nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baten fotokopia.
2. Bizikidetza-unitatearen egoera ekonomikoa egiaztatzen duten dokumentuak: banku egiaztagiriak, pentsioen ordainagiriak, Gipuzkoako eta Estatuko ogasunek emandako ondasun-egiaztagiriak, nomina, langabezia prestazioak, BEZaren aitorpena, e.a.
3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

**II ANEXO**

Deberá acompañarse a la solicitud la siguiente documentación a efectos de acreditar la condición de beneficiario/a:

1. Fotocopia de un documento acreditativo de la identidad del solicitante y del resto de los miembros de la unidad convivencial.
2. Documentos acreditativos de la situación económica de la unidad convivencial: certificados bancarios, recibos de pensiones, certificados de bienes de Hacienda de Gipuzkoa y estatal, nómina, prestación por desempleo, declaración de IVA, etc.
3. Según establece el art. 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las

39/2015 Legearen 28.2 artikuluaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko. Horregatik, Azpeitiko Udalak inprimaki bakoitzean adieraziko du dokumentuak kontsultatu edo eskatu ahal izango dituela, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat. Aurka eginez gero, interesdunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

AAPP, los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Por ello, El Ayuntamiento de Azpeitia indicará en cada formulario que documentos podrá consultar o recabar salvo que la persona interesada se opusiera a ello. En caso de oponerse, el interesado deberá presentar la documentación exigida.

4. Gainera, aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatu ahal izango ditu administrazio eskudunean prozedura ebazteko eskatutako hainbat dokumentu. Inprimakietan zehaztuko da zein izango diren egiaztapen horiek.

4. Además, de acuerdo con la normativa aplicable, el órgano instructor de este procedimiento podrá comprobar de oficio en la administración competente diferentes documentos requeridos para resolver el procedimiento. En los formularios se detallará cuales serán tales comprobaciones.

5. Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori ekartzea eskatzaileak, eskaera egiten duen momentuan, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen baditu.

5. No será necesario aportar esta documentación si el/la posible beneficiario/a es en el momento de la solicitud beneficiario/a de Ayudas de Emergencia Social.

6. Laguntza merkatuan eskura daitekeen ondasun edo zerbitzu bat finantzatzeko eskatzen bada, espezialista eskudunaren txostena aurkeztu beharko da, bai eta, gutxienez, aurrekontu bat ere. Udalak egiaztatu ahal izango du aurrekontu hori merkatuko prezioekin bat datorren.

6. En los casos en que la ayuda tenga por objeto la financiación de bien o servicio disponible en el mercado, aportará en caso necesario el informe del especialista correspondiente y al menos un presupuesto. El Ayuntamiento podrá comprobar la adecuación de éste a los precios de mercado.

Azpeitiko Udala